


ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



Andres Aranzon Argazkaria - Oñatiko Udal Artxibuan Zerbitzua



Auzolanian jasotako itturrixa

Mendizaliak diranak oso ondo ezaguketan dauen **itturrixa** da Arantzazutik Urbixarako bidian dagueen hau. **Erroitegi** izeneko parajian eskintten dosku ur freskua gorunzkotan nahiz beherunzkotan. Noiztik, baiña? Ba, aurtengo udan beteko dittu 64 urte. Luzaruan Urbixako elizatzoko kapillau izan zan **Joxe Iñazio Lasa** frantziskotarraren ahalegiñairi esker **mol dau zan itturrixori auzolanian**. Izan be, proiektua udaletxian aurkeztu bihar izan zan, ura goragotik ekarri, lekua garbittu eta egogittu, hargintzaiaz arduratu eta beste hainbat lan burutu.

Aitta Lasak **txantxikuar pilatxo baten laguntzaia** euki eben bere asmua gauzatu ahal izateko. Gremixo desbardiñetako mendizale oñatiarrak alkartu ziran zeregin horretan: **Karlos Moiua** eta **Bartolo Igartua** igeltseruak, **Migel Elortza** arotza, **Hijinio Azpiazu** iturgin-ojalaterua; **Migel Anjel Arzuaga** marrazkilaria-pinttoriak modutu eben krokisa; Sindikako **Julian Madinabeitiak** emun zittuan uraren tubexia pasaitteko lur-saillak; **Benjamin Astigarraga** kontzejalaren bittartez bideratu ziran udaleko baimen-kontuak; **Txantxiku Txoko** mendi-alkarteko **Joxe Mari Leturia**, **Joxe Mari Urtzelai** eta **Anjel Anduagak** be parte hartu euen, hala nola, **Frantzisko Azurmendik**, tarte libretan mendiko bidiak eta sendak markaitzen jarduten eben Portalekuko Pako txokolateruak. Arantzazuko **fraidegei batzuk** be majo saiatu ei ziran. Hargin-lanak, barriz, **Manuel Penak** egin zittuan.

Itturrixari hasieran **Ama Birjiña Pagokuaren** izena ifiñi xakon. Baiña historixiori hurrengo batian kontau biharko dotsuet. Gaurko argazkittan 1957ko irudixak ikusi zeinkie. Goixenian, urte haretako agustuan, inauguraziño-eguneko mezetara inguratu ziranak dagoz, atzetik hartuta gehixenak; ezkerreko abadia **Joxe Mari Agirrebaltzategi** oñatiarra da, eta meza-emulia **Joxe Iñazio Lasa** fraide matxinbentarra izan leike. Behian ezkerretara, proiektu haretan parte hartutako oñatiar batzuk agiri dira: ezkerretik eskumara, **Anjel Anduaga**, **Bartolo Igartua**, **Pako Azurmendi**, **Joxe Mari Leturia**, **Migel Elortza**, **Benjamin Astigarraga** eta **Joxe Mari Urtzelai**. Eskumakuan **Migel Elortza** agerketan xaku itturri onduan, berau egin barritan.

Honeik dittuzue fotografixen jatorrixak: goixenekua Oñatiko Udal Artxibuan dago Arlanzon fonduan eta Izar Salaberrik eskuratu dosku; beheko ezkerrekua Lourdes Azurmendiren bittartez heldu xaku; eta eskumakua Anton Elortzaren bidez. Argibide asko J. I. Lasaren **Tejendo historia** liburuan topau dittugu. Milla esker danoiri!